

PROBA OROKORRA

2010eko PROBA

EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.
Probaren iraupena: 45 minutu.

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Gripe berriaren aurkako txertoa 4 edo 6 hilabeteren buruan egongo da prest

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) **iragarri** du "aste gutxiren buruan" hainbat industria ohiko gripearen aurkako bakunak ekoizteari utzi eta gripe berriaren aurkakoak egiten hasiko direla. Nolanahi ere, lehen dosiak lantegietatik ateratzeko "4 edo 6 hilabete" pasatu beharko direla zehaztu du.

Prentsaurrekoan, Marie-Paule Kieny Txertoak Ikertzeko Elkartearen zuzendariak baieztatu du ohiko txertoa ez dela **eragingarria** A gripearen birus berriaren aurka. Dena dela, farmazia industriak "esperientzia handia" duela gogorarazi du, eta beraz, lasai agertu da. **Adituaren ustez**, ez da pandemia ofizialki deklaratu arte itxaron behar AH1N1 birusa zabaltzea galarazten duen txertoa **ekoizten** hasteko.

OMEk 'txerri gripea' izena ez erabiltzea erabaki zuen atzo, eta orain AH1N1 izena erabiltzen ari da birus berria aipatzeko.

13 kasu baieztatuta Espainiako Estatuan

Bestalde, Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak 108ra jaitsi ditu Estatuan dauden balizko gripe kasuak, baina baieztatutakoak 13 dira oraindik. Azken balantzean, 116 ziren **balizko** kasuak. Hala ere, medikuek nabarmendu dute balizko kasuen %95 faltsuak direla.

Baieztatuta dauden 13 kasu horietatik, berriz, sei Katalunian daude, bi Gaztela-Mantxan eta bana Euskadin, Valentzian eta Murtzian. Dena dela, ez daude larri Katalunian **jazotako** kasu bat izan ezik. Gainerakoak Mexikotik etorri berri diren pertsonak dira.

Frantziak bere lehenengo bi kasuak atzeman ditu

Roselyne Bachelot Frantziako Osasun ministroak baieztatu du bi kasu **atzeman** dituztela Parisko eskualdean. Herrialdeko bi lehenak dira. Biak Mexikotik etorri berri dira; beraz, ez dira Frantzian kutsatu. **Bacheloten arabera**, beste balizko kasu bat atzeman dute, eta emaitza positiboa emango du seguru aski.

Osasunaren Mundu Erakundeak ez du gomendatu herrialdeen mugak ixtea, baina gaixo dauden pertsonen haien bidaiak atzeratzea komeni dela adierazi du.



4. Eman testuan letra lodiz eta azpimarratuta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (2 puntu)

ekoizten	
balizko	
atzeman	
iragarri	
eragingarria	
jazotako	

5. Testuan grisez nabarmenduta zenbait adierazpen agertzen dira. Espresio horien funtzioa esaten denaren segurtasun-maila zehaztea da, edo esaten denaren erantzule norbait egiten dela. Esan nabarmendutako espresio horietatik zeintzuek betetzen dituzten taulan zehazten diren funtzioak (bat baino gehiago egon daiteke): (1 puntu)

Espresioak	Funtzioa
	Zerbait probabilitate handiarekin gertatuko dela adieraztea
	Testuaren idazleak esandakoaren erantzule ez dela egiten, beste norbait baizik
	Zerbait seguru gertatuko dela adieraztea
	Zerbait seguru gertatu dela adieraztea

6. Egizu testuaren laburpena. (2 puntu)



**PROBAREN ERANTZUNAK
EUSKARA (2010 maiatza)**

Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.

Probaren iraupena: 45 minutu.

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

**Gripe berriaren aurkako txertoa 4 edo 6 hilabeteren buruan
egongo da prest**

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) **iragarri** du "aste gutxiren buruan" hainbat industria ohiko gripearen aurkako bakunak ekoizteari utzi eta gripe berriaren aurkakoak egiten hasiko direla. Nolanahi ere, lehen dosiak lantegietatik ateratzeko "4 edo 6 hilabete" pasatu beharko direla zehaztu du.

Prentsaurrekoan, Marie-Paule Kieny Txertoak Ikertzeko Elkartearen zuzendariak baieztatu du ohiko txertoa ez dela **eragingarria** A gripearen birus berriaren aurka. Dena dela, farmazia industriak "esperientzia handia" duela gogorarazi du, eta beraz, lasai agertu da. **Adituaren ustez**, ez da pandemia ofizialki deklaratu arte itxaron behar AH1N1 birusa zabaltzea galarazten duen txertoa **ekoizten** hasteko.

OMEk 'txerri gripea' izena ez erabiltzea erabaki zuen atzo, eta orain AH1N1 izena erabiltzen ari da birus berria aipatzeko.

13 kasu baieztatuta Espainiako Estatuan

Bestalde, Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak 108ra jaitsi ditu Estatuan dauden balizko gripe kasuak, baina baieztatutakoak 13 dira oraindik. Azken balantzean, 116 ziren **balizko** kasuak. Hala ere, medikuek nabarmendu dute balizko kasuen %95 faltsuak direla.

Baieztatuta dauden 13 kasu horietatik, berriz, sei Katalunian daude, bi Gaztela-Mantxan eta bana Euskadin, Valentzian eta Murtzian. Dena dela, ez daude larri Katalunian **jazotako** kasu bat izan ezik. Gainerakoak Mexikotik etorri berri diren pertsonak dira.

Frantziak bere lehenengo bi kasuak atzeman ditu

Roselyne Bachelot Frantziako Osasun ministroak baieztatu du bi kasu **atzeman** dituztela Parisko eskualdean. Herrialdeko bi lehenak dira. Biak Mexikotik etorri berri dira; beraz, ez dira Frantzian kutsatu. **Bacheloten arabera**, beste balizko kasu bat atzeman dute, eta emaitza positiboa emango du seguru aski.



Osasunaren Mundu Erakundeak ez du gomendatu herrialdeen mugak ixtea, baina gaixo dauden pertsonen haien bidaiak atzeratzea komeni dela adierazi du.

GALDERAK

1. **Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (igorlea, hartzailea, erabilera eremua, testu-tipoa, testu-generoa...) eta arrazoitu zeure erantzuna. (2 puntu)**

Informazio orokorreko egunkari edo aldizkari batean argitaratutako albistea da. Ez da informazio espezializatua eta ez dago zuzenduta irakurlego espezifikoki bati, baizik eta publiko orokorrari, gizarte osoari. Beraz, hitzak eta esapideak informazio zehatza eta argia ematea dute helburu eta horrenbestez, edonork erraz ulertzeko modukoak baitira, ez dira hitz tekniko edo ezagutza maila handia behar dutenak. Testu tipoi dagokionez, informazio testua da, narrazio testua hain zuzen ere, komunikabideetako erabilpen eremukoa. Bertan, gripe berriaren egoeraren eta hartzen ari diren neurrien berri ematen du kazetariak. Ez da gripeari buruzko azalpen tekniko-zientifikoa.

2. **Aukeratu ondokoan artean zure ustez testuaren helburua hobekien biltzen duena. (1 puntu)**

- Txerto berria laster prest egongo dela esatea jendea lasaitzeko
- Gripe berriaren gaurko egoera zein den adieraztea eta hartzen ari diren neurriak iragartzea.
- Gripe berriaren egoera pentsatzen zen bezain larria ez dela jakinaraztea.

3. **Esan testuan esaten denaren arabera honako esaldiak egiazkoak ala gezurrezkoak diren. Markatu erantzun egokia gurutze batez. (1,5 puntu)**

Zuzendu gezurrezkoak diren esaldiak edo esan zergatik diren okerrak. (0,5 puntu).

Esaldia
1. Espainian gripe berriaren kasu susmagarrien artean 13 baino ez dira seguruak
2. OME-k iragarri du ohiko gripearen kontrako txertoak egiteari utziko diola gripe berriaren kontrakoak produzitzeko.

Egia	Gezurra
X	
	X



3. Gripe berriaren aurkako txertoa ekoizten hasiko dira, baina ez dira txertoa ipintzen jarriko harik eta pandemia ofizialki deklaratu arte.
4. Gripe berriari "txerri gripea" deitzea ez da zuzena
5. Espainiako Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak hasieran uste zuen 116 kasu posible zeudela, baina orain uste du 108 baino ez direla
6. Medikuek esan dute balizko kasu gehienak faltsuak direla
7. Frantzia bi kasu daude baieztatuta, baina hiru ere izan daitezke
8. OME-k gomendatzen du pertsona gaixoen atzerirako bidaiak mugatzea

	X
X	
X	
X	
X	
	X

2. Zenbait enpresak utziko diote ohiko gripearena urkako txertoa ekoizteari ez OME-k

3. Ohiko gripearean kontrako txertoak ekoizteko ez da itxaron behar pandemia izan arte.

8. OME-k gomendatzen du pertsona gaixoen bidaiak, era guztietakoak, atzeratzea, ez mugatzea.

4. **Eman testuan letra lodiz eta azpimarratuta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta.** (1,5 puntu)

ekoizten	Sorrarazten, produzitzen, egiten, sortzen...
balizko	Posible, ustezko, hipotetiko...
atzeman	Aurkitu, topatu, kausitu, ediren...
iragarri	Jakinarazi, aditzera eman, komunikatu, zabaldu, berri eman...
eragingarria	Efikaza, eraginkorra...
jazotako	Gertatutako, suertatutako, agitutako, pasatutako...



5. Testuan grisez nabarmenduta zenbait adierazpen agertzen dira. **Espresio horien funtzioa esaten denaren segurtasun-maila zehaztea da, edo esaten denaren erantzule norbait egiten dela.**

Esan nabarmendutako espresio horietatik zeintzuek betetzen dituzten taulan zehazten diren funtzioak (bat baino gehiago egon daiteke): (1 puntu)

Espresioak		Funtzioa
“Seguru aski”		Zerbait probabilitate handiarekin gertatuko dela adieraztea
“Adituaren ustez” “Bacheloten arabera”		Testuaren idazleak esandakoaren erantzule ez dela egiten adieraztea, beste norbait baizik
“egongo da prest”		Zerbait seguru gertatuko dela adieraztea
“atzeman ditu”		Zerbait seguru gertatu dela adieraztea

6. Egizu testuaren laburpena (2 puntu)

Osasunaren Mundu Erakundeak jakinarazi duenez, sei hilabeteren buruan egongo da prest gripe berriaren aurkako txertoa, ohiko griperako txertoa eraginkorra ez delako; horregatik ez da itxaron behar guztiz zabaldu arte ekoizten hasteko. Gripe berria ‘txerri gripea’ barik, ‘An11 gripea’ izendatzea erabaki du.

Gaixotasunaren hedadurari dagokionez, badira balizko kasuak, eta horietako asko faltsuak. Espainian, esaterako, ehundik gorako ustezko kasuetatik, baieztatutakoak 13 dira eta Frantzian bi atzeman dituzte. OME-k gaixorik daudenek bidaiak atzeratzeko gomendioa egin du.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2010eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2010

EUSKERA

**GALDERA ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN
ARTEKO HARREMANA**

GALDERA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK
1	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak eta horien formatua antzematea.
2	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
4	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri hizkuntzakoak (lexikoak), antzematea.
5	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, antzematea.
6	2.4. Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea.